

Ordizian, 2015eko irailaren 8a, Udaletxe honetako batzar-aretoan bildu zen TOKIKO GOBERNU-BATZARRA, Ohiko bilkuran. Honakoak bertaratu ziren:

BERTARATUAK:

LEHENDAKARIA: Jose Miguel Santamaría Ezeiza jn.

BERTARATUTAKO ZINEGOTZIAK:

Angelica Moreno Heras and.	EAJ/PNV
Igor Eguren Izagirre jn.	Ordiziako EH Bildu
Mila Sukia Galparsoro and.	Ordizia Orain
Iñaki Dubreuil Churruca jn.	Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak

BERTARATU EZ ZIREN ZINEGOTZIAK:

Ez dago

IDAZKARIA:

Iker Rocandio Etxeberria jn.

EGUNEKO GAI-ZERRENDAKO GAIAK

- 1.- 2015eko uztailaren 21eko bilkurako akta onartzea.
- 2.- Fakturen zerrenda.
- 3.- Euskal festen egitaraua eta aurrekontua.
- 4.- Euskal Herriko Emakumeen Mundu Martxa.
- 5.- Emakumeen aurkako indarkeriarik gabeko Ordizia seguru baten alde.
- 6.- Siriako, Irakeko, Afganistango eta Saharaz hegoaldeko herrialdeetako indarkeria eta gatazketatik ihes egin duten ehundaka mila pertsonen bizi duten zorigaitza dela eta, proposamena.
- 7.- San Bartolome, 11: bizilagun bakarraren birkokatzea.
- 8.- Udal etxebizitza baten errentamendu-kontratuaren egoera.
- 9.- Zenbait txosten eta eskaera.



ORDUTEGIA

HASIERA ORDUA: 13:05

AMAIERA ORDUA: 14:57



Lehendakari jaunak eman dio hasiera saioari, gai-zerrendako lehen puntuari helduta:

1.- 2015eko uztailaren 21ako bilkurako akta onartzea.

Proposamena

2015eko uztailaren 21ako ohiko bilkurako aktaren zirriborroa onartzea.

Aho batez onartu da.



2.- Fakturen zerrenda.

Ikusi da.



3.- Euskal festen egitaraua eta aurrekontua.

Azaldu da. Asteazkeneko ekitaldien aurrekontua: 40.000.-€ eta astean zehar egingo diren ekitaldien aurrekontua: 17.755.-€. Guztira: 57.755.-€



4.- Euskal Herriko Emakumeen Mundu Martxa.

Adostu da Udalak adierazpen instituzional bat egingo duela, Martxara atxikitzen.



5.- Emakumeen aurkako indarkeriarik gabeko Ordizia seguru baten alde.

Azaldu da Socialistas Vascos – Euskal Sozialistak taldearen proposamena Adostu da Berdintasun Kontseilura eramatea, aztertu dezan.



6.- Siriako, Irakeko, Afganistango eta Saharaz hegoaldeko herrialdeetako indarkeria eta gatazketatik ihes egin duten ehundaka mila pertsonen bizi duten zorigaitza dela eta, proposamena.

Azaldu da Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak taldearen proposamena. Gaia jorratze aldera, adostu da lan-talde bat sortzea (Ongizate Kontseiluaren bidez)



7.- San Bartolome, 11: bizilagun bakarraren birkokatzea.

Adostu da Udalak aztertuko dituela zer betebeharrak dituzten, bizilagunarekiko, etxebizitzaren jabeek. Behin-behinean, alokatuko zaio Aita Urdaneta 10.2º.D helbidean kokaturiko eta udalaren jabetzako etxebizitza, hutsik dagoena, Udalak interes handia baitu San Bartolome, 11ko eraikinaren eraistean.



8.- Udal etxebizitza baten errentamendu-kontratuaren egoera.

Aita Urdaneta 10.2º B helbidean kokaturiko udal etxebizitzaren maizterrak ez du alokairua ordaintzen. Udalak gaia aztertu eta kontratu horrekin zer egin erabakiko du.



9.- Zenbait txosten eta eskaera.

Oianguko zuhaitzek ematen dituzten sagarrekin sagardoa egiteko baimena eskatu dute. Uzta alferrik galdu ez dadin, behin-behinean baimena ematea adostu da. Datozen urteetarako, Idazkariak aztertuko du sagarren eskaintza publikoa nola egin.

.....

Udal talde politikoen lokalak: ostiralean zehaztuko da nola banatzen diren.

.....

Hirigintzako Plan Orokorra: jarraipen batzorde bat osatuko da, Udal talde politikoen ordezkariak eta arkitekta barne.

.....



Martinezek tabernak mahaitxo eta aulkiak jartzeko baimena eskatu du. Gertaturikoa azaldu du alkateak.



10.- Norberak lekarkeenak.

Eguren jaunak gobernu plana eskatu dio Alkate jaunari eta honek emango diola erantzun.

Eguren jaunak galdetu du ia noiz gauzatuko den plenoak grabatzeko aukera. Alkate jaunak erantzun du horretan ari direla.

Sukia andreak proposatu du errefuxiatuen gaia jorratzea Ordiziako komunitate kultural guztiekin, bilera batean.



Aztergai gehiago ez dagoenez, Lehendakariak bilera amaitutzat eman du, eta honako akta jaso da; hori, nik, Idazkariak egiaztatzen dut.

